

GIZONDUZ EKIMENA

2018ko
Memoria



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

AURKI BIDEA

- 1.0 SARRERA 03
- 2.0 2018AN EGINDAKO JARDUKETAK 03
 - 2.1 WEBGUNEA 03
 - 2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA 06
 - 2.3 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA 20
 - 2.4 GIZON TALDEAK ESPARRU POLITIKOAN 22
 - 2.5 «BERDINTASUNAREN ALDEKO EUSKAL GIZONAK» JARDUNALDIA 22
 - 2.6 «GIZONOK ESAN ETA EGIN» KANPAINA 23
 - 2.7 JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA 24
 - 2.8 AHOLKULARITZA 24

1.0

Sarrera

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzeko.

Helburuak Gizonduz ekimena sortzen duen agirian zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatuta dauden gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna areagotzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: 2007-2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017.

2.0

2018an egindako jarduerak


2.1 WEBGUNEA

2018an, Gizonduz ekimenari buruzko atala administratzen jarraitu zen Emakunderen webgunean. Hark ekimenaren inguruko informazio ugari eskaintzen du hainbat euskarritan, baita honako atal hauek ere: Prestakuntza, elkarrizketak, kanpainak, gizon taldeak, bloga, materialak, Gazteak Berdintasunean 2.0, jardunaldiak eta abar.



2018. urtean, 2.732 erabiltzaile izan ziren: 3.883 saio egin zituzten, eta 10.411 orrialde begiratu zituzten. Euskal Autonomia Erkidegotik 1.659 ikustaldi egin ziren 2018an (ikustaldi guztien % 42,72), honela banatuta:

Bisitak Euskal Autonomia Erkidegoan



Euskal Autonomia Erkidegoko bisiten % 44,79 Gasteiztik egin ziren, % 35,08 Bilbotik eta % 20,13 Donostiatik.

Orrialdean irekitako saioen guztirako kopurutik % 76,07 Espainiatik egin ziren (2.085 saio), eta gainerakoak, beste herrialde batzuetatik. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, erabiltzaileen % 55,98k espainiera erabili dute (1.545 erabiltzaile/2.399 saio), % 3,12k euskara (86 erabiltzaile/119 saioa) eta % 15,65k ingelesa (432 erabiltzaile/510 saio).

2.1.1 BLOGA

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazio baliagarria proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, gaurkotasun-gaiei buruzko iritziak, gogoetak eta iruzkinak aditzera emateko, berdintasunaren, gizonen eta maskulinitateen inguruan.

2018ko urtarriletik abendura, 61 sarrera kargatu ziren, hainbat kategoriatan; besteak beste: erakundeen ekimenak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, gizonen taldeak, eta gizonak eta berdintasuna. Gizonduz ekimenaren bloga 2008ko uztailean jarri zen abian eta, harrezkero, 1.064 sarrera kargatu dira.

2.1.2 ELKARRIZKETAK

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsonen egindako elkarrizketak jasotzen dira. 2018. urtean, honako elkarrizketa hau egin zen:

- **Octavio Salazar.** Konstituzio Zuzenbideko katedraduna Kordobako Unibertsitatean, eta ikertzaile aditua genero-berdintasunean eta maskulinitateetan. Besteren artean, liburu hauen egilea da: *Masculinidades y ciudadanía. Los hombres también tenemos género* eta *El hombre que no deberíamos ser*.

2.1.3 SARE SOZIALAK

Gizonduz Facebooken dago 2009. urteaz geroztik. 2018an, 5.069 gogoko dut eta 4.917 jarraitzaile izan zituen besteak beste, % 37 emakumeak eta % 58 gizonak. 185 argitalpen egin ziren, 2018an.


Gizonduz-ek 1.752 jarraitzaile ditu Twitterren. 2011tik 45.284 txio idatzi dira guztira. 2018. urtean idatzi ziren, gainera, horietako 540.

Halaber, Gizonduz-ek kontu bat du YouTube: berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako hitzaldien, tailerren eta iragarkien bideoak eta ikus-entzunezko materialak ikus daitezke. YouTubeko Gizonduz orrialdean 30 bideo daude, eta 2018. urtean 2.856 aldiz ikusi dira bideo horiek.

2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduz-en lehenengo prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa jarri ginen abian.


Gizonduz ekimenaren prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik 2018ko abendura 13.065 pertsonak parte hartu dute aurrez aurreko nahiz online ikastaroetan, horietatik 7.168 gizonak (% 54,86), 5.827 emakumeak (% 44,6), Ez Binario kategorian identifikatu diren 29 pertsonak (% 0,22) eta galdera honi erantzun ez dioten beste 41ek (% 0,31) .



2.2.1 AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2009tik 2018ra, biak barne, aurrez aurreko 553 ikastaro egin dira (2018an, 56). Guztira, 10.943 pertsonak parte hartu dute, horietatik 6.328 gizonak (% 57,83), 4.545 emakumeak (% 41,53), Ez Binario gisa identifikatu ziren 29 pertsonak (% 0,26) eta galdera honi erantzun ez zioten beste 41ek (% 0,37).


Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera



Ikastaro horiek honela banatzen dira:

| Urtea | Emakumeak | Gizonak | Ez Binariora | Ez du erantzun | Guztira |
|----------------|-------------|-------------|--------------|----------------|--------------|
| 2009 | 241 | 512 | - | - | 753 |
| 2010 | 900 | 895 | - | - | 1795 |
| 2011 | 638 | 821 | - | - | 1459 |
| 2012 | 677 | 768 | - | - | 1445 |
| 2013 | 389 | 628 | - | - | 1017 |
| 2014 | 375 | 662 | - | - | 1037 |
| 2015 | 354 | 467 | - | - | 821 |
| 2016 | 382 | 630 | - | - | 1012 |
| 2017 | 362 | 464 | - | - | 826 |
| 2018 | 227 | 481 | 29 | 41 | 778 |
| GUZTIRA | 4318 | 5847 | 29 | 41 | 10943 |

Ikasleek iraupen tipologia desberdinetako ikastaroetan parte hartu dute 2009tik 2018ra, biak barne. Tipologia horiek honela banatzen dira:



Ikasleen % 31k 3 ordura arteko ikastaroetan parte hartu dute; ikasleen % 47k 4 ordutik 10 ordu-
ra arteko ikastaroetan, eta ikasleen % 22k, 10 ordu edo gehiagokoetan.

2018an, halaber, lanagatik edo gizartean duten oihartzunagatik eragin biderkatzailea izan dezaketen pertsonentzako ikastaroak gehitzen jarraitu da, horietan parte hartzen dutenek ikasi dituzten edukiak eta egindako gogoetak lan-eremuan edo eremu sozialean erabiltzeko aukera izan dezaten.


Eragin biderkatzaile hori duten lanetan dabiltzan taldeekin eta pertsonekin lan egiteko erabakia-
ren ondorioz, ez dira bete programan jasotako prestakuntza-eskaera guztiak; izan ere, zenbait kolektibo eskatzailek ez zituzten aipatu baldintzak betetzen. Hala ere, aurreko urteekin aldera-
tuta, 2018an iraupen luzeagoa duten ikastaroen ehunekoari eutsi zaio; horrek ikastaro horien
izaera prestatzailea indartzen du.

2018an, aurreko urteetan ez bezala, gehitu egin dira antolatzaileen erabakiz eta hainbat arrazoi
tarteko (matrikula, epeak, barne-antolamendua eta abar) bertan behera utzi diren ikastaroak.
Horren ondorioz, eman gabe utzi dira 16 ikastaro (122 prestakuntza-ordu).

2018an, elkarlanean jarraitu da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren mendeko Polizia
eta Larrialdien Euskal Akademiarekin. Horren ondorioz, 14 ikastaro eman dira: 12 ikastaro
Ertzaintzako XXVI. Promozioako langileei eta 2 ikastaro Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko
langileei.

| 2018ko Ikastaroak | Ordu kopurua | Orduen % | Ikasleak, guztira | Ikasleen % | Gizonak | Emakumeak | Ez du erantzun | Ez Binariora |
|----------------------------------|--------------|-------------|-------------------|-------------|------------|------------|----------------|--------------|
| Ordubeteko 12 ikastaro | 12 | 3,28% | 66 | 8,48% | 1 | 62 | 3 | 0 |
| 2- 3 orduko 3 ikastaro | 8 | 2,19% | 11 | 1,41% | 6 | 1 | 1 | 3 |
| 4 -10 orduko 20 ikastaro | 88,5 | 24,18% | 281 | 36,12% | 183 | 83 | 7 | 8 |
| 10 ordutik gorako 21 ikastaro | 257,5 | 70,36% | 420 | 53,98% | 230 | 142 | 30 | 18 |
| GUZTIRA, 56 ikastaro | 366 | 100% | 778 | 100% | 481 | 227 | 41 | 29 |

2018ko aurrez aurreko ikastaroak



2018an honako hau izan zen aurrez aurreko ikastaroen banaketa, erakunde eskatzaileen arabera:

Sindikatuekin eta enprekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

| Erakundea | Edukiak | Norentzat diren | Iraupen-orduak |
|-------------------------------|--|-------------------|----------------|
| OHL | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| OHL Zerbitzuak | Maskulinitateak eta indarkeria sexista | Bertako langileak | 4 |
| Metro Bilbao | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| Autobuses La Guipuzcoana S.L. | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| Euskotren | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 18 |
| Prospektiker Iks, s. | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| Betsaide | Maskulinitateak eta sexu-jazarpena | Bertako langileak | 4 |
| Tenneco | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

| Erakundea | Edukiak | Norentzat diren | Iraupen-orduak |
|--|--|-------------------|----------------|
| EHUren Donostiako Hezkuntza Fakultatea | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Ikasleak | 4 |
| Aretxabaletako Udala | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |

| | | | |
|---|---|-------------------------------|-----|
| Donostiako Udala | Sexismoaren aurkako prestakuntza-tailerra: Txutxumutxurik ez! | Bertako langileak | 20 |
| Lasarteko Berritzegunea | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Herritarrak | 4 |
| Emakunde-Gizonduz | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Herritarrak | 4 |
| Emakunde-Gizonduz | Sakontze-modulua | Herritarrak | 20 |
| Arratiako Mankomunitatea | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| Gernikako Berritzegunea | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Herritarrak | 4 |
| Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4,5 |
| EHUren Donostiako Gizarte Hezkuntzako Eskola | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Ikasleak | 4 |
| EHUren Donostiako Gizarte Hezkuntzako Eskola | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ikasleak | 4 |
| VISESA | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 8 |
| Leioako Udala | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 4 |
| Irungo Gaztelekua | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Herritarrak | 3 |
| Lemoizko Udala | Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 3 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |

| | | | |
|---------------------------------------|---|-------------------------------|----|
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Ertzaintzaren XVII. promozioa | 10 |
| Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila | Maskulinitatea, berdintasuna eta arriskuaren murrizketa | Bertako langileak | 10 |
| Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila | Maskulinitatea, berdintasuna eta arriskuaren murrizketa | Bertako langileak | 10 |
| Arkaute Prestakuntza Akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Udaltzaingoa | 10 |
| Arkaute akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Udaltzaingoa | 10 |
| Arkaute Prestakuntza Akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Udaltzaingoa | 10 |
| Arkaute Prestakuntza Akademia | Maskulinitateak eta berdintasuna | Udaltzaingoa | 10 |

Elkartekin eta beste hezkuntza-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

| Erakundea | Edukiak | Norentzat diren | Iraupen-orduak |
|---|---|----------------------|----------------|
| Cáritas Donostia | Gizonekiko esku-hartze soziale-rako prestakuntza | Bertako langileak | 8 |
| Iresgi. Martuteneko espetxea | Maskulinitatea, indarkeria sexista eta arriskuaren murrizketa | Barnekoak | 12,5 |
| Emaús Gipuzkoa | Maskulinitatea eta balio-aldaketa | Bertako langileak | 2 |
| Medicus Mundi Euskadi | Maskulinitatea, balio-aldaketa eta arriskuaren murrizketa | Bertako langileak | 4 |
| Romi Bidean | Sakontze-modulua | Bertako langileak | 20 |
| Donostiako Gizarte Langileen Elkargo Ofiziala | Maskulinitatea eta balio-aldaketa | Ikasleak | 4 |
| Don Bosco LHII | Maskulinitatea eta balio-aldaketa | Ikasleak | 12 |
| Etorkintza Bilbao | Gizonekiko esku-hartze sozialerako prestakuntza | Bertako langileak | 12 |
| Gipuzkoako Psikologoaren Elkargo Ofiziala | Maskulinitateak, indarkeria matxista eta berdintasuna | Atxikitako langileak | 15 |

Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako parte-hartzaileek emandako balorazioen batez beste-koak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta (1 da puntuaziorik txikiena, eta 6, handiena). 742 balorazio jaso dira: 218, emakumeek egindakoak; 452, gizonek; 28 beste batzuk epigrafean jasotakoak dira, eta 44 pertsonak ez diote galderari erantzun. Ikastaroa egiten duten elkarteek

eta erakundeek jasotako ebaluazio-galdetegiaren zati bat entregatzeko dagoela hartu behar da kontuan; hortaz, ez dira taula honetan agertzen.


Jasotako ebaluazio-galdetegiaren kopurua, sexuaren eta adinaren arabera

| Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera | 16-24 urte | 25-30 urte | 31-54 urte | 55 urte eta gehiago | EDE | Guztira |
|---|------------|------------|------------|---------------------|-----------|------------|
| Emakumeak | 35 | 42 | 115 | 19 | 7 | 218 |
| Gizonak | 114 | 82 | 195 | 43 | 18 | 452 |
| Beste batzuk | 6 | 7 | 11 | 2 | 2 | 28 |
| Ez du erantzun | 3 | 4 | 13 | 1 | 23 | 44 |
| Guztira | 158 | 135 | 334 | 65 | 50 | 742 |

Jasotako balorazioak (Otik 6ra)

| | Emakumeak | Gizonak | Bestelakoak | ED/EDE | Batez Bestekoa |
|--|-----------|---------|-------------|--------|----------------|
| Ikastaroaren balorazio orokorra | 5,18 | 4,82 | 5,23 | 4,63 | 4,94 |
| Ikasgaiaren inguruan lehendik zeneuzkan ezagutzak | 3,97 | 3,77 | 3,66 | 3,95 | 3,85 |
| Edukia | 4,93 | 4,68 | 5,19 | 4,64 | 4,79 |
| Hizlaria | 5,32 | 5,10 | 5,77 | 5,01 | 5,18 |
| Dinamizazioa | 4,92 | 4,79 | 5,19 | 4,48 | 4,81 |
| Taldearen partaidetza | 4,51 | 4,62 | 4,76 | 4,43 | 4,56 |
| Antolamendua | 4,97 | 4,79 | 5,04 | 4,57 | 4,85 |
| Eremua | 4,83 | 4,82 | 4,87 | 4,26 | 4,81 |
| Erabilitako materialak | 4,90 | 4,59 | 4,91 | 4,51 | 4,69 |
| Zure bitzita pertsonalerako baliagarria iruditzen zaizu? (%) | %94 | %93 | 94 | %90 | %92,75 |
| Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzita profesionalerako? (%) | %91 | %89 | 100 | %90 | %92,5 |

Batez besteko balorazioak 6tik (sexuaren arabera banatu gabe)



Aurreko urteetan bezala, ikasleek modu positiboan baloratu dituzte erabilitako materialak eta erabilitako metodologia parte-hartzailea. Aurreko urteetan bezala, hobekuntza hau proposatu da: ikastaro luzeagoak egitea, eta lanerako tresna praktikoen gaineko ezagutza areagotzea.

Ikastaroen gaineko balorazioak aurreko urteetako antzekoak izan dira. Oro har, esan daiteke Gizonduz ekimenaren barruan eskaini diren aurrez aurreko ikastaroek bete egin dituztela ikasle-
leen espektatibak, baita programarenak ere.


Pertsona gehienek (emakumeen % 89k eta gizonen % 81ek) lehen aldiz egin dute Gizonduz-en ikastaro bat.

Ebaluazio-galdetegiko alderdien gainean egindako balorazioan, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten, sexuaren edo adinaren arabera.

Gizonduz-en ikastaroak antolatu dituzten erakundeek egindako balorazioak

Guztira 16 pertsonak erantzun diote galdetegi honi; horietatik 10 emakumeak dira eta 4 gizonak, eta ez dugu ezagutzen gainerakoaren sexua. Galdetegiari erantzun dioten pertsonak 41,92 urte zituzten batez beste.


Ikastaroak eman dituzten pertsonen batez besteko balorazioak



Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, ikastaroak barne hartzen dituen elementu nagusien balorazio globalak puntuazio ona izan du. «Antolamenduak» lortu ditu puntu gehien (5,25) eta, horren ondoren, «dinamizazioak» (5,19) eta «hizlariaren» balorazioak (5,19). Bestalde, «taldearen partaidetzak» lortu ditu puntu gutxien (% 4,63), kalifikazioa ona izan arren.

Era berean, ikastaroaren hasieran aurreikusitako balorazioa eta ikastaroa amaitu ondorengo balorazioa ebaluatu dira. Oro har, oso ebaluazio ona lortu da bi balorazioetan. Horietan 5 puntu edo gehiago lortu dira, hau da, ikastaroaren hasieran aurreikusitako balorazioan nahiz ikastaroaren ondorengo balorazio orokorrean.

Ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen batez besteko balorazioak



Grafikoan ikus daitekeen moduan, ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen balorazioak altuak izan dira. Honako hauek izan dira baloraziorik onena jaso duten alderdiak: «komunikazioa ikastaroaren prestatzailearekin» (5,69), «kudeaketaren bizkortasuna» (5,56) eta egutegi-erraztasunak (5,5). Ikasleen balorazioetan nahiz erakunde antolatzaileen balorazioetan honako hobekuntza hauek proposatu dira: prestakuntzak luzeagoak izatea, jorratutako gaietan sakontzea eta ikastaroei lanerako erremintak eskaini ditzatela.


2.2.2 INTERNET BIDEZKO IKASTAROAK

2.2.2.1 Online sentsibilizazioa

Ikastaro horretan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexuaren araberako rolerik eta estereotipoek sozializazioan duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspena, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizakion bizitzan duen garrantzia, gizonak etxeko lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan duten inplikazioa, sozializazio sexistak gizonengan eragiten dituen genero-arazoak, indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina eta abar.

Online ikastaroa 2009an jarri zen martxan. Ordudanik 2018ra egindako edizioetan, biak barne, 836 pertsonak (474 emakumeak eta 362 gizonak) bukatu dituzte ondo ikastaroak.


Ikastaroa ondo bukatu zuten pertsonak



2018. urtean, guztira, 84 lagunek ondo bukatu zuten ikastaroa: 18 emakumek eta 66 gizonak. Ikastaroan parte hartu duten lagunen kopuruak ere nabarmen egin du gora, aurreko urtearekin alderatuta: 2018an, 84 lagunek egin zuten, eta 2017an, berriz, 57 lagunek. Ikastaroa egin duten gizonen proportzioa aurreko urtekoa baino handiagoa da: % 78,6.

2018an, 43 ebaluazio-galdetegi jaso ziren.

2018: Ikastaroaren gaineko balorazioa (sei puntutik)



| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---------|-----------|---------|
| Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta pertsonalerako? BAI | 41 | %14 | %81,4 |
| Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta profesionalerako? BAI | 40 | %14,3 | %81 |


Ikastaroaren (4,6) eta haren edukien (4,55) balorazioa positiboa izan da. Azpimarratzeko modukoa da, gainera, ikastaroa egin duten pertsonen % 85en baino gehiagoren ustez ikastaroa baliagarria izan dela bitzta pertsonalerako eta profesionalerako.

2.2.2.2 EHU-ren online ikastaroa


«Maskulinitateak. Gizonak eta Berdintasuna: erronkak eta erresistentziak» izeneko ikastaroaren bitartez, ikasleek gaitasun teorikoak eta praktikoak gara ditzatela lortu nahi da, gure gizartean maskulinitateen eraikuntza soziala aztertzeko. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egin nahi da eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitatearen adierazpen anitzak jorratzen dira, baita horrek emakumeei eta gizonei eragiten dizkien ondorioak ere. Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunean egin diren aurrerapenak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexista berriak aztertzen dira, indarkeria matxistari buruzko azterketan sakonduz, eta biztanle gazteenengan, kausetan eta adierazpen ohikoenetan zentratuz.

Bi online ikastaro egin dira gaztelaniaz eta beste bi euskaraz, EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean; ikastaroek 25 eskola-orduko iraupena izan dute, eta unibertsitateko kreditu 1. Lehenengoa 2018ko otsailaren 26an hasi eta martxoaren 28an bukatu zen, eta bigarrena, berriz, 2018ko urriaren 22an hasi eta azaroaren 28an bukatu. Guztira 440 pertsona (155 gizon eta 314 emakume) matrikulatu ziren ikastaroan, eta horietatik 291 pertsonak (206 emakume eta 85 gizon) bukatu zuten ondo.

2018: EHUren online ikastaroa egin zuten pertsonak



2018: Batez besteko balorazioak (10etik)



| | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Beste batzuk | Ez du erantzun |
|--|---------|-----------|---------|--------------|----------------|
| Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako? BAI | %96,76 | %58,06 | %29,03 | %6,45 | %3,22 |
| Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? BAI | %90,31 | %58,06 | %22,58 | %6,45 | %3,22 |

Ikastaroaren balorazio globalaren batez bestekoa (10etik 8,6) positiboa da. Ikastaroaren edukiei ere balorazio ona eman zaie (10etik 8,8).

Azpimarratzeko modukoa da, gainera, ikastaroa egin duten pertsonen % 90en baino gehiagoren ustez ikastaroa baliagarria izan dela bizitza pertsonalerako (% 96,7) eta profesionalerako (% 90).

2.3 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektuaren bidez, nerabeen eta gazteen kontzientzia-zioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, eta, bereziki, gizonena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarrituta.

Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak... izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat.

2016tik 2018ra (biak barne), 15 ikastetxetan egin dira ikastaroak. 682 emakumek eta 720 gizonen parte hartu dute; 1.364 lagunek, guztira. Irakasleen kasuan, aldiz, 78 lagunek: 46 emakumek eta 28 gizonen.

2018. urtean zehar, proiektua eta horren osagaiak probatu dira 3 ikastetxetan eta udalerritan, kaleko jarduera batean. Aipatu prozesuan, honako hauek parte hartu dute: Bilboko Murgitu Lanbide Heziketako Zentroak, Bilboko San Luis Lanbide Heziketako Zentroak eta Lasarteko ikastolak. Irakasleentzako ikastaroetan, 6 emakumek eta 9 gizonen parte hartu dute. Ikasleentzako ikastaroetan, aldiz, 255 lagunek: 131 emakumek eta 128 gizonen.



2.4 GIZON TALDEAK ESPARRU POLITIKOAN

2017tik udal-eremuan eta 2018tik Eusko Jaurlaritzaren esparruan, hainbat prozesu garatu dira berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako gizon politikarien taldeak eratzeko.

Prestakuntza-, hausnarketa- eta truke-eremu horietan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortu nahi da eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzea.

2.5 «BERDINTASUNAREN ALDEKO EUSKAL GIZONAK» JARDUNALDIA

2018ko urriaren 23an, «Berdintasunaren aldeko euskal gizonak» jardunaldia egin zen, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela. Kanpainak honako helburu hauek zituen:

- Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako Euskal Gizonen Eskutitzaren 10. urteurrena ospatzea.
- Azken hamarkadan Gizonduz ekimenaren esparruan egin den lanari balioa ematea eta urte hauetan zehar programarekin elkarlanean aritu direnei eskerrak ematea.
- Lanean etorkizuneko erronkak jakinaraztea, gizonek berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra parte har dezaten.
- Berdintasunaren alde dauden sektore eta eremu desberdinetako euskal gizonen presentzia ikusgai egitea: politikan, ekonomian, kulturean, arlo sozialean, herritarrean...
- Gizonei bideratutako «Gizonok esan eta egin» kanpaina aurkeztea, horien berdintasunaren aldeko inplikazioan aurrera egiten jarraitzeko.




Jardunaldian 150 pertsona inguruk parte hartu zuten, batik bat gizonek, eta esparru politikoko ordezkari ugari izan ziren. Lehendakariaren eta Emakundeko zuzendariaren diskurtsoez gain, hiru bideo proiektatu ziren:

- «Gizonduz, 10 urte» bideoan, Gizonduz-en ibilbideko erronka nagusiak laburbiltzen dira. Gainera, programan parte hartu duten edo lagundu duten pertsonen testigantzak jasotzen dira, eta Gizonduz ekimenari buruzko iritzia eman dute, baita gizonekin lan egiteak beren esparruan edo erakundean nola eragin duen, eta etorkizunean zer azpimarratu beharko litzatekeen ere.
- «Miguel Lorenteren hitzak». Bertan, Genero Indarkeriaren kontrako delegatu ohiak eta arlo horretako nazioarteko adituak Gizonduz-en egindako lana nabarmendu zuen, eta berdintasunaren aldeko konpromiso zehatzak hartzera animatu zituen euskal gizonak.
- «Gizonok esan eta egin». Bideo honetan, izen bereko kanpaina azaltzen da. Gasteizko alkate ohi José Ángel Cuerdak, Xabier Euzkitze kazetariak eta Patxi Pérez aktoreak parte hartu dute bertan; hiru gizon horiek *Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako euskal gizonen eskutitza* sinatu zuten bere garaian eta, orain, konpromiso horretan haratago joateko prest agertu dira, kanpainarekin publikoki bat eginez.

2.6 «GIZONOK ESAN ETA EGIN» KANPAINA

Kanpaina honekin, Emakundek jarraipena eman nahi izan dio 10 urtetan baino gehiagotan zehar Gizonduz bidez egin den lanari, hala, euskal gizonek aurrerapauso bat gehiago eman dezaten eta beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa har dezaten berdintasunaren alde, hala nola erantzukidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerrarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatzeako orduan.



Horretarako, aplikazio informatiko bat jarri da horien eskura eta, urrats gutxi batzuetan, gizonak test bat egin dezakete beren sexismoa autoebaluatzeko; era berean, zenbait konpromiso aukera ditzakete, eta horiek praktikan jartzeko hainbat baliabide eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu aplikazioak berak.

Gizonek berdintasunaren alde duten inplikazioa ikusgai egiteko, interesa duten gizonek beren konpromisoa publiko egiteko aukera ematen du aplikazioak.

2.7 JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Hauetan, adibidez:

- «La implicación de los hombres a debate» (Gizonen inplikazioa eztabaidan) Jardunaldia, Zarautzeko Udalak antolatua.
- Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko nazioarteko konferentzia, Eudelek eta Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) Bilbon antolatua.
- Gizakia Helbururen XX. Jardunaldia, adikzioetan esku hartzeko ikuspegi integralari buruzkoa.
- «Eta gizonak zer?» jardunaldiak, CEPAIM Fundazioak antolatuak.
- Kultura, Komunikazio eta Garapenerako XI. Nazioarteko Topaketan «Sexua, musika eta kirola gizonen gaiak dira?», EHUren udako ikastaroaren esparruan.
- «Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko elkarlanean» jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak antolatuak.
- Genero Indarkeriari buruzko VII. Jardunaldia, Osakidetza antolatua.
- Indarkeria sexistaren esparruan jarduteko gizonen bideratutako politika publikoen lan-saioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatua.
- Gizonekin berdintasunaren aldeko lan-ildo bat garatzeko lan-saioa, Kanarietako Gobernuak antolatua.

2.8 AHOLKULARITZA

Azkenik, 2018an, kontsulta guztiei erantzun zitzaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.



Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel 945 01 67 00

Mail emakunde.gizonduz@euskadi.eus

